

GINARRI ARAUTZAILEAK, DONOSTIAKO HIRI-EKONOMIAN PRESTAKUNTZA ETA ENPLEGU BERRITZAILEA SUSTATZEKO TRAKZIO-PROIEKTUAK BULTZATZEKO PROGRAMARENAK. PROGRAMA DONOSTIAKO ENPLEGU ETA TOKI GARAPENERAKO 2026-2030 PLANAREN ESPARRUAN GAUZATUKO DA, LANBIDE-EUSKAL ENPLEGU ZERBITZUAK ETA EUSKO JAURLARITZAKO EKONOMIA, LAN ETA ENPLEGU SAILAK FINANTZATUTA.

ATARIKOA

Donostiako Udalak, Donostia Sustapenaren bitartez, enplegua eta tokiko garapen ekonomikoa sustatzeko politika garatzen du, Donostiako Enplegu eta Toki Garapenerako 2026-2030 Plana baliatuz. Tresna estrategiko horri esker, udalaren jarduna hiri eredu berritzaileago, lehiakorrago eta sozialki kohesionatuago batera bideratzen du. Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzuak eta Eusko Jaurlaritzako Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailak elkarrekin finantzatzutako plan hori Enpleguaren Euskal Legearen (15/2023 Legea) eta Enpleguaren 2030erako Euskal Estrategiaren jarraibideen esparruan kokatzen da, eta tokiko eta autonomia-erkidegoetako politiken koordinazioa indartzen du, lana aktibatzearen eta garapen ekonomikoaren arloan.

Enplegu eta Toki Garapenerako 2026-2030 Planak berean biltzen ditu zenbait ildo estrategiko, zeinen xedea herritarren enplegarritasuna hobetzea, enpresa sarea indartzea eta jasangarriagoa, digitalagoa eta ezagutzen oinarrituagoa den ekoizpen eredu baterako trantsizioa bideratzea baita. Helburu nagusiak dira lanbidea aktibatu eta birgaitzea, talentu gazte eta seniorra bultzatzea, enpresa berrikuntza babestea, balio erantsi handiko sektore estrategikoak sustatzea eta kalitatezko enplegua sortzen eta mantentzen lagunduko duen tokiko ekosistema bat finkatzea.

Gaur egungo egoera ekonomikoaren konplexutasunagatik (langabezia txikia, aldaketa soziodemografikoak eta teknologia- eta ingurumen-trantsizioak) beharrezkoa da beste modu batean jorratzea enpleguaren gaur egungo erronkak. Besteak beste, nabarmendu behar da hiriko ekonomiak (ostalaritzaren eta merkataritzaren sektorea) zailtasun handiak dituela profil profesional egokiak aurkitzeko, langabetu gutxi dagoelako eta belaunaldi-erreleboa gertatzen ari delako; bestalde, beharrezkoa da arlo hori profesionalizatzea, profesionalki erakargarri izateko eta mundu mailako turismoaren eta onlineko merkataritzaren esparruetan lehiakor izateko; eta, azkenik, ezinbestekoa da zerbitzuok ematen dituzten lanbideak gaitzea, gaur egungo lan merkatuan kalitatea eta lehiakortasuna lortzeko.

Horretarako, Donostiako Udalak, Donostia Sustapenaren eskutik, Enplegu eta Tokiko Garapenerako 2026-2030 Plana jarri du martxan, helburu argi batekin: hirian garapen ekonomikoa eta kalitatezko enplegua bultzatuko duten ekimen berritzaileak sustatzea,

pertsonak erdigunean jarrita eta hiri ekosistema osatzen duten eragile publiko eta pribatuekiko lankidetzan oinarrituta.

Programa Donostiako Enplegu eta Toki Garapenerako 2026-2030 Planaren esparruan kokatzen da, zeina Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzuak eta Eusko Jaurlaritzaren Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailak finantzatu baitute elkarrekin.

XEDAPEN OROKORRAK

1. ARTIKULUA. XEDEA

Laguntza hauen xedea da langabetuak laneratzeko edo hiri-ekonomiaren eremuko langileen enplegua hobetzeko trakzio-proiektuak eta proiektu esperimental berritzaileak bultzatzea, merkataritzaren eta ostalaritzaren sektoreetan, esparru horretako lanbide profilek gaur egun dituzten premiei erantzungo dieten lanbide-profil lehiakorrek sustatze aldera.

2. ARTIKULUA. BALIABIDE EKONOMIKOAK

Donostia Sustapenak **HIRUREHUN MILA EURO (300.000,00 €)** bideratuko ditu oinarri hauetan araututako laguntzetara, Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzuak eta Eusko Jaurlaritzako Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailak elkarrekin finantzatutako Donostiako Enplegu eta Toki Garapenerako 2026-2030 Planaren esparruko dirulaguntzatik.

Donostia Sustapenak zenbateko hori aldatzeko eskubidea izango du, egoki iritziz gero.

3. ARTIKULUA. ONURADUNAK

Laguntzaren onuraduna izango da laguntza emateko oinarria izan den jarduera egin behar duen pertsona oro, edo laguntza ematea legitimatzen duen egoera batean dagoen oro, baldin eta oinarri hauetan jasotako baldintzak betetzen baditu eta, zehazki, laguntza mota bakoitzari buruzko baldintzak.

Laguntzen onuradun izan daitezke pertsona fisiko zein juridikoak, publikoak nahiz pribatuak, nazionalak nahiz atzerrikoak, baita aurreko nortasun horiek ez dituzten elkarteak ere, baliozko moduan eratu badira ordenamendu juridikoaren arabera, eta oinarri hauetan ezarritako betekizunak betetzen badituzte. Kanpoan uzten dira ondare-sozietateak, 2/2014 Foru Arauak, urtarilaren 17koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Sozietateen gaineko Zergari buruzkoak, 14. artikuluan definitu bezala.

Oinarri hauetan, laguntzak eskatzeko betekizunak eta horiek egiaztatzeko modua zehaztuko dira. Nolanahi ere, pertsona fisiko edo juridiko eskatzaileek nahitaez bete beharko dituzte

20/2023 Legeak, abenduaren 21ekoak, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzekoak bere 13. artikuluan onuradun izateko ezartzen dituen baldintzak.

Ezingo dira onuradun izan 20/2023 Legearen 13. artikuluan ezarritako egoeraren batean dauden pertsona fisiko edo juridikoak, eta, bereziki:

- Indarrean dauden xedapenek zergen eta gizarte-segurantzaren arloan ezartzen dituzten betebeharrak egunean ez dituztenak.
- Ebazpen irmo batez zehatu dituztelako dirulaguntza edo laguntza publikoak jasotzeko debekua dutenak, edo horretarako desgaitzen dituen legezko beste edozein debeku dutenak. Era berean, ezingo dira onuradun izan emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan indarrean dagoen araudiaren ondoriozko debekuen eraginpeko pertsona fisiko edo juridikoak, barne hartuta 1/2023 Legegintzako Dekretuak, martxoaren 16koak, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testuategina onartzen duenak bere 23.2 artikuluan ezarritako debekuen eraginpekoak. Halaber, ezin izango dira onuradun izan Estatuko araudiari jarraikiz berdintasun-plan bat izatera behartuta egonik plan hori indarrean ez duten enpresak, ez eta sexu-jazarpena, sexuan oinarritutako jazarpena eta sexu-indarkeriak prebenitzeko eta horien aurka borrokatzeko neurriak ezartzeko betebeharra izanik horien betetze-maila ziurtatzen ez dutenak ere.
- Donostiako Udalarekin eta/edo Donostia Sustapenarekin zor mugaeguneratuak, likidoak eta eskagarriak dituztenak.
- Aurrez emandako dirulaguntza edo laguntza publikoen itzulketa osorik edo zati batean egiteke dutenak, ez badute egiaztatzen erreklamaturako zenbatekoak ordaindu dituztela edo dagokion itzulketa-prozeduraren ondoriozko betebeharrak egunean dituztela.

30.000 eurotik gorako dirulaguntzetarako, merkataritza eragiketetako berankortasunaren aurkako neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legearen mendeko pertsona fisiko eta juridikoek egiaztatu beharko dute betetzen dituztela onuradun izateko lege horretan ezarritako ordainketa epeak, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 13.3 *bis* artikuluan aurreikusitako baldintzetan.

39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak bere 28.2 artikuluan xedatutakoari jarraikiz, interesdunak ez daude beharturik jarduneko administrazioaren esku dauden edo beste administrazioen batek prestatu dituen dokumentuak entregatzera. Gainera, jarduneko administrazioak dokumentu horiek kontsultatu edo eskatu ahal izango ditu, interesdunak horren aurka egiten duenean izan ezik; halakoetan, dagozkion ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu.

Donostia Sustapenak, Donostiako Udalaren interoperabilitate aplikazioaren bidez, zuzenean egingo du kontsulta administrazio publiko eskudunetan, prozedura honen ebazpenerako eta ordainketetarako informazio hau lortzeko:

- Udalari eta Donostia Sustapenari egin beharreko ordainketak egunean izatearen ziurtagiriak.
- Foru Ogasunari egin beharreko ordainketak egunean izatearen ziurtagiriak.
- Onuradunaren eta sustatzaileen Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren (JEZ) historia.
- Gizarte Segurantzari egin beharreko ordainketak egunean izatearen ziurtagiriak.

Dirulaguntzaren eta ordainketen eskaera egitean Udal Zerga-bilketarekiko, Foru Ogasunarekiko eta/edo Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak betetzen ez dituzten onuradunek betebeharrak hori egunean dutela egiaztatu beharko dute, jakinarazpena jaso dutenetik HAMAR (10) egun balioduneko epean.

4. ARTIKULUA. ONURADUNEN DEIALDI HONETAN PARTE HARTZEKO BETE BEHARREKO BALDINTZAK

1.- Onuradunak izango dira:

- a. Irabazi-asmorik ez duten prestakuntza-erakundeak, baldin eta beren helburuak, xede soziala edo fundazioaren xedeetako bat gizarte-bazterkeriako arriskuan dauden pertsonak laneratzea bada.
- b. Prestakuntza erakunde publiko eta pribatuak, autonomia erkidegoko Enplegurako Prestakuntzako Erakundearen Erregistroan edo Estatuko Prestakuntza Erakundearen Erregistroan erregistratuta daudenak.
- c. Euskadiko hirugarren sektoreko erakundeak, zailtasun bereziak dituzten pertsonak gizarteratzeko eta laneratzeko lan egiten dutenak, Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialeko Erakundearen Erroldan erregistratuak.
- d. Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzuak homologatutako enplegu- eta/edo orientazio-agentziak.
- e. Merkataritzaren eta ostalaritzaren sektoreetako fundazioak eta/edo elkarteak.
- f. Gizarteratzearekin eta laneratzearekin lotutako beste erakunde batzuk

2.- Onuradunek baldintza hauek bete beharko dituzte deialdi honetan parte hartzeko:

- a. Lantokia eta jarduera ekonomikoa Donostiako udalerrian duten pertsona fisiko edo juridikoak izan beharko dira.
- b. Dirulaguntzaren xede diren prestakuntza ekintzak gauzatzeko behar diren giza baliabideak eta baliabide materialak izan beharko dituzte, edo prestakuntza jarduera hasten den unean horiek izateko konpromisoa hartu beharko dute.
- c. Instalazioak eta baliabideak bereak edo hirugarren erakunde pribatu edo publiko batenak izan ahalko dira eta, ahal dela, Donostiako udalerrian egon beharko dute. Osterantzean, erakunde onuradunak parte-hartzaileen mugikortasuna bermatu edo erraztu beharko du.

Donostia Sustapenak, kudeaketan parte hartzen duen erakunde laguntzailea den aldetik, eskubidea izango du jarduerentzako eremua finkatzeko, bai eta oinarri hauetan ezarritako baldintzak betetzen direla bermatzeko beharrezkotzat jotzen duen informazio eta ekarpen oro eskatzeko ere.

Ezingo dira onuraduntzat hartu:

- Aldi baterako laneko enpresak.

5. ARTIKULUA. DIRUZ LAGUNDUKO DIREN KONTZEPTUAK ETA LAGUNTZEN ZENBATEKOA

Oinarri hauetan araututako dirulaguntzek gehienez ere proiektu bakoitzeko berrogeita hamar mila euroko (50.000 €) zenbatekoa izango dute eta, oro har, diruz lagundu daitezkeen gastuen % 100 estaliko du.

Ordaindutako zenbatekoa ez da inoiz oinarri hauetan ezarritakoaren arabera aurkeztu eta justifikatu diren gastu edo inbertsioen zenbatekoa baino handiagoa izango.

Justifikatutako gastu guztiak laguntza justifikatzeko azken eguna baino lehen ordaindu beharko dira.

Txartel bidez, banku transferentzia bidez edo helbideratuta egindako ordainketen egiaztagiriak soilik onartuko dira. Egiaztagiri horietan, egindako eragiketari buruzko informazioa jaso beharko da (onuraduna, kontzeptua, zenbatekoa, data, etab.). Ez da onartuko banku-mugimenduen zerrendarik, ezta BIZUM bidez egindako ordainketarik ere.

Donostiako Sustapenak gehienez ere bi dirulaguntza eman ahal izango ditu erakunde eskatzaile bakoitzeko.

Diruz lagun daitezkeen gastuak.

1.- Diruz lagundu daitezkeen gastutzat onartuko da, oro har, zalantzarik gabe diruz laguntzen den jarduerari erantzuten diona, oinarri arautzaile hauetan ezarritako epearen barruan egin bada:

a. Proiektuari atxikitako langileen kostuak.

a.1. Proiektua gauzatzen zuzenean parte hartzen duten langileen soldatak eta gizarte-aseguruak (prestakuntzako langileak, koordinatzaileak, begiraleak, administrazioako langileak, etab.)

b. Enpresa espezializatuak kontratatzearekin lotutako gastuak

b.1. proiektuaren barruan prestakuntza ematen dutenak.

b.2. enplegarritasunaren, prestakuntzaren edo laneratzearen arloan aholkularitzako edo mentoretzako zerbitzuak ematen dituzten profesionalak.

c. Funtzionamendu gastuak.

c.1. Aretoen eta ekipamenduen alokairuak

Jarduerak egiteko beharrezkoak diren espazioak eta materialak alokatzearen ondoriozko gastuak (ikasgelak, bilera gelak, ikus-entzunezko ekipamendua, etab.). Bermatu beharko da guneok motorrik gabeko bitartekoen (oinez, bizikletaz) eta/edo garraio publikoaren bidez erraz iristeko moduan daudela, eta horri buruzko informazioa eman beharko zaie bertaratuei.

c.2. Material didaktikoaren eta ekipamendu pertsonalaren gastuak.

Prestakuntzarako edo aurreikusitako jardueretarako beharrezkoak diren hezkuntza-materialak eta tresnak erostea (eskuliburuak, baliabide digitalak, aplikazio informatikoak, etab.).

c.3. Komunikazio gastuak

Proiektuaren sustapenarekin, hedapenarekin eta ikusgarritasunarekin lotutako kostuak (publizitatea, informazio materialen inprimaketa, diseinu grafikoa, sare sozialetako kanpainak, etab.).

c.4. Ikasleen aseguruak

Ikasleek proiektuko jardueretan parte hartzea estaltzen duten aseguruak.

c.5. Prestakuntza kostuak eta ikastaro espezializatuak:

Onlineko prestakuntzarako lizentziak edo materialak eskuratzearekin lotutako kostuak.

c.6. Garraioa eta joan-etorriak:

Ikasleak proiektuko jardueretara garraiatzearen ondoriozko gastuak, baldin eta premia justifikatzen bada. Bermatu beharko da joan-etorriak motorrik gabeko bitartekoen bidez (oinez, bizikletaz) eta/edo garraio publikoaren bidez egiten direla. Ez da finantzatzeko erregai fosilak erabiltzen dituen garraiiorik.

c.7. Bulegoko materiala eta hornigai orokorrak:

Paper-gauzak, bulegoko materiala edo proiektuak behar bezala funtzionatzeko beharrezkoa den beste edozein hornigai erostea, ingurumen irizpideei jarraikiz.

c.8. Justifikatuta dauden eta beharrezkoak diren beste gastu batzuk:

Proiektua gauzatzearekin zuzenean lotuta dagoen eta hura gauzatzeko beharrezkoa den beste edozein gastu. Horrelako gastuak behar bezala justifikatu beharko dira eta Donostia Sustapenak onartu beharko ditu.

2.- Diruz lagundu daitezkeen gastuen erosketa-kostua ezingo da izan, inola ere, merkatuko balioa baino handiagoa.

3.- Diruz lagundu daitezkeen gastuen **egikaritze epea 2026ko ekainaren 19tik 2027ko maiatzaren 15era** artekoa izango da.

4.- Ezingo dira gastu hauek finantzatu:

- Administrazio baimenak, lizentziak, baimenak, abalen eta/edo fidantzen kostua eta isunak.
- Dietak.
- Kudeaketa, kontratazio, kontsulta edo izapide administratiboekin lotutako edozein gastu, baimenak edo lizentziak lortzeko beharrezkoak izan arren.
- Edozein finantza kostu.
- Zigor penalekin lotutako kostuak eta prozedura judizialen ondoriozkoak.
- Sistema eragileak eta bulegotikako aplikazioak erabiltzeko lizentziak.
- Gauzaz egindako ordainketak.
- Talde bereko enpresen artean emandako zerbitzuak; beraz, ez da onartuko barne fakturazioko prozesurik.
- Kontabilitateko, kontularitzako, auditoretzako eta aholkularitza fiskaleko ohiko jarduerak.
- Ohiko material suntsikorren erosketa.
- Gastu arruntak eta, bereziki, hornidura gastuak, esaterako, argia, ura eta komunikazioak (telefonoa eta Internet).
- Interesak, errekarquak, zergak eta administrazio zehapenak.
- Balio Erantsiaren gaineko Zerga (BEZ) eta gainerako zeharkako zergak.

6. ARTIKULUA. PROIEKTUEN ETA JARDUEREN GUTXIENeko BETEKIZUNAK

1.- Trakzio-proiektuen eta proiektu esperimental berritzaileen xedea **langabetuen laneratzea bultzatzea edo langileen enplegua hobetzea** izango da, hiri-ekonomiaren eremuan, merkataritzaren eta ostalaritzaren sektoreei dagokienez, oinarri hauen xedean azaldutako erronkak betetze aldera.

2.- Trakzio-proiektuak eta proiektu esperimentalak **bi toki-erakunderen edo gehiagoren artean egin beharko dira; ondorio horietarako, halakotzat hartuko dira prestakuntza zentroak**, hirugarren sektoreko erakundeak, enplegu agentziak, orientazio agentziak, nagusiki fundazioak eta elkarteak, eta horien artean zenbait jarduera proposatuko dituzte, laneratzea bultzatzeko eta enplegarritasuna eta/edo gizarteratzea hobetzeko trakzio-proiektu esperimentala osatzeari begira.

Helburua da balio kate osagarri bat sortzea, hainbat eragileren arteko lankidetzaren sare baten bidez, non gizarteratzea eta kolektiboen aniztasuna funtsezko ardatz izango baitira. Horren bidez, hiri-ekonomiaren arloko langileen premiak ase nahi dira, merkataritzaren eta ostalaritzaren sektoreetan.

3.- Aurkeztutako proiektuak ebaluatzeko, aintzat hartuko da zer gaitasun duten hiri-ekonomiaren esparruan enplegu aukerak sortzeko eta parte-hartzaileen enplegarritasuna hobetzeko, merkataritzaren eta ostalaritzaren sektoreetan. Aukerak sustatzeko gaitasun horrek lotuta egon behar du sektore horretan laneratzea erraztuko duten ekimenak sortzearekin, zeinetan gaitasunak eskuratzea, trebetasun praktikoak garatzea eta tokiko eragileen eta enpresen arteko lankidetzaren bultzatzea baitira. Halaber, aintzat hartuko dira lanbide profilen dibertsifikazioa eta kalteberatasun egoeran dauden kolektiboen inklusioa sustatzen duten ikuspegi berritzaileak. Ebaluazioak lehentasuna emango die kolektiboen integrazio eraginkorra lortzen duten proiektuei, hala profesionalizazioaren bidez nola hiri-ekonomiaren esparruan eta merkataritzaren eta ostalaritzaren sektoreetan aisialdiko, turismoko eta merkataritzako enpresa edo jardueretan laneratuz, frogatzen badute inpaktu nabarmena izan dutela epe luzearako enplegua sortzen.

4.- Erakundeek jarduketaren hauen inguruan garatu ditzakete trakzio proiektu esperimentalak (formula osagarri edo mistoekin, besteak beste):

- Zailtasun handienak dituzten pertsonen arreta emateko jarduerak: laneratzearen oztopo handienak dituzten parte-hartzaileen premia espezifikoak asetzea, enplegarritasuna hobetzeko zeharkako prestakuntzen bidez eta kolektiboari egokitutako metodologiak erabiliz.

- Ibilbide osoa barne hartzen duten plan integralak garatzeko jarduerak (laneko orientazioa, enplegurako prestakuntza –egiaztatu ezineko zeharkako kualifikazioa–, laneko bitartekaritza eta lan merkatuari buruzko informazio aurreratua).
- *Enplegurako prestakuntza-ekintzak (egiaztatu ezin den kualifikazioa dutenak) eta/edo enplegurako prestakuntzarekin lotutako lan-praktikak garatzea.** parte-hartzaileei enplegurako prestakuntza kualifikatzailea, lanpostuan bertan emandako prestakuntza edo enplegurako prestakuntzarekin lotutako lanbide-praktikak egiteko aukera eskaintzea, hiri-ekonomiaren sektorean, merkataritzaren eta ostalaritzaren arloan edo horiekin lotutako jardueretan esperientzia eskuratzeko, hala nola garbiketan, mantentze-lanetan, administrazio-kudeaketan eta hondakinen kudeaketan.
- Lan eskaintzak proiektatzeko jarduketak: hiri ekonomiaren arloko enpresekin lankidetzan aritzea merkataritzako eta ostalaritzako sektoreekin lotuta, parte-hartzaileei lan aukerak sortzeko. Gainera, lan poltsa bat sortzea parte-hartzaileentzat, bereziki kalteberatasun egoeran dauden kolektiboentzat.
- Tokiko enpresetan informazioa emateko, sentsibilizatzeko eta kontratatze jarduerak egitea: tokiko enpresetan informazio- eta sentsibilizazio-kanpainak egitea, gizarte bazterkeriako arriskuan dauden kolektiboetako pertsonen kontratazioa sustatzeko.
- Jarduketak egitea lankidetzako sinergiak sortu eta, hala, zeharkako prestakuntzak bultzatzeko, pertsonen autonomia lantzeko, bai eta lana bilatzeko prozesuetan duten posizionamendua ere.
- Prestakuntzako eta aholkularitzako jarduerak egitea, aldaketa soziodemografikoei eta belaunaldi erreleboaren, trantsizio digitalaren eta ingurumen jasangarritasunaren ondoriozko aldaketei aurre egiteko.

(*) Egoera hau Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak C graduen formakuntzan egin ditzakeen aldaketen mende dago.

5.- Erakunde onuradunak aurrez adierazi diren jarduera guztiak egitetik sortutako informazio guztia erregistratu beharko du Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzuaren aplikazioan eta/edo Donostia Sustapenaren SIFOM aplikazioan. Hautatutako pertsonen eta azken parte-hartzaileei buruzko datuak igo beharko dira, eta haien datu pertsonalak, curriculum eta egindako jardueren buruzko informazioa sartu beharko da.

6.- Parte-hartzaileen % 40 emakumeak izango dira. Salbuespen gisa, Donostia Sustapenak baldintza hau betetzen ez duen proiektu bat gauzatzeko baimena eman ahalko du.

7.- Gainera, parte-hartzaile guztiek Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzuan enplegu-eskatzaile gisa izena emanda egon beharko dute.

8.- Erakunde eskatzaileak edo laguntzaileak Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzuaren homologazioa eduki beharko du orientazio ekintzak egiteko.

9.- Erakunde eskatzaileek eta laguntzaileek nahitaez parte hartu beharko dute Donostia Sustapenak sustatutako eta Planarekin eta beste lankidetzak proiektu batzuekin lotutako Enplegu eta Toki Garapenerako Planaren Gobernantzarako mahaian.

10.- Donostia Sustapenak beste edozein dokumentazio edo informazio osagarri eskatzeko eskubidea izango du, aurreko baldintzetako edozein betetzen dela egiaztatze aldera.

11.- Proiektuak diseinatzeko erreferentzia orientagarriak:

Proposamenak egiten laguntzeko eta aurreikusitako jarduketan dimentsioa orientatzeko, proiektuek, gutxi gorabehera, gauzatzeko honako magnitude hauek jaso ahal izango dituzte:

- Gutxi gorabehera 10 parte-hartzaile emango zaie arreta eta lan-orientazioa, eta 100 ordu inguru emango dira horretan.
- Gutxi gorabehera 10 parte-hartzaile zuzendutako prestakuntza-ekintzak garatzea, 150 orduko dedikazioarekin.
- Lan-merkatuari buruzko informazio aurreratuko jarduerak, gutxi gorabehera 20 parte-hartzaile zuzenduak, 200 ordu inguruko dedikazioarekin.
- Esku hartzeko proposamen metodologiko bat diseinatzea eta aplikatzea.

Aurreko erreferentziak deialdi honen bidez bultzatu nahi diren jardueren dimentsionamenduaren adibideak dira, eta proposamenen balorazio teknikoa egiteko irizpide orientagarriak izango dira. Ez betetzeak edo magnitude desberdinak aurkezteak ez du berez ekarriko eskaera baztertea, eta ez du proiektua ez onartzea ekarriko.

7. ARTIKULUA. BESTE LAGUNTZA BATZUEKIN BATERATZEA

Laguntzak bateragarriak izango dira estatuko, Europako nahiz nazioarteko administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatuak helburu berarekin emandako beste edozein dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabiderekin. Horrek ez du ezertan galaraziko bateratu nahi diren laguntzak erregulatzeko araudian horri dagokionez ezarritakoa, baldintza hauek betetzen badira:

Laguntzon azken hartzaile guztiek, hala jarduera ekonomikoa gauzatzen duten pertsona fisikoek (autonomoak) nola pertsona juridikoek, nahitaez bete beharko dituzte Europako Batzordearen 2023/2831 (EB) Erregelamenduak, 2023ko abenduaren 13koak, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua «minimis» laguntzei aplikatzeari buruzkoak ezarritako baldintzak eta mugak.

Hala, azken hartzaile bakoitzak gehienez ere 300.000 € jaso ahalko ditu minimis laguntzetan, hiru ekitaldi fiskaleko edozein alditan. Horretarako, araubide honen eraginpekoek jaso dituzten laguntzen berariazko erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko dute, frogatzeko muga kuantitatibo hori bete dela hiru ekitaldi fiskalean (dagokion ekitaldi fiskalean eta aurreko bi ekitaldi fiskalean), eta laguntza emateko unea hartuko da kontuan zenbaketa egiteko.

Dirulaguntza emateko ebazpenean, dirulaguntza gordinaren zenbateko baliokidearen berri emango zaio onuradunari, minimis laguntzaren mugaren ondorioetarako.

Oinarri honetan adierazitakoaren arabera jaso den laguntzaren zenbatekoa ezingo da izan, inola ere, diruz lagundutako jardueraren kostua baino handiagoa, laguntza hori bakarrik edo beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabiderekin batera harturik.

8. ARTIKULUA. AURKEZTU BEHARREKO ESKAERAK ETA AGIRIAK

Deialdia Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean (BDNS) argitaratuko da eta, ondoren, laburpena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (GAO) argitaratuko da. Eskabideak aurkezteko epea bi (2) astekoa izango da, deialdi hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita.

Eskabideak telematikoki aurkeztuko dira, Donostia Sustapenaren webgunearen bitartez (www.fomentosansebastian.eus).

Edozein informazio jasotzeko edo kontsulta egiteko, 943 48 28 00 telefonora deitu edo fomentoss@donostia.eus helbide elektronikoa erabil daiteke, gaian honako hau jarrita: **«Prestakuntzako eta enpleguko trakzio-proiektuetarako 2026ko laguntzak»**. Donostia Sustapenaren webgunean adierazten da publikoari arreta emateko ordutegia.

Laguntza ekonomiko hau eskatu nahi duten enpresa edo erakundeek agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

Administrazio agiriak:

- 1) **Eskabidearen eranskina.**
 - 2) Eskatzailearen **IFK**ren kopia eta, hala badagokio, ahalduaren NANA, ordezkaritza ahalordeekin batera.
 - 3) Laguntza eskatzen duen pertsonaren edo erakundearen **Banku-datuen eranskina**, dagokion banku-erakundeak zigilatuta, edo banku agiri baliokidea.
 - 4) Horrez gain, **elkarte eta fundazioek** agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:
 - Hala badagokio, dagokion erregistroan izena emanda egotea egiaztatzen duen agiriaren fotokopia.
 - Erakundearen estatutuen edo araudiaren fotokopia, behar bezala zigilatuta eta sinatuta.
- Agiriok erakunde eskatzaileak interesgarritzat jotako beste edozein agiriarekin osatu ahalko da.
- 5) **Prestakuntzako erakundeek** prestakuntza erakunde gisa erregistratuta egotearen egiaztagiria aurkeztu beharko dute.
 - 6) **Erakunde eskatzaileek** edo laguntzaileek orientazio ekintzak egiteko Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzuaren homologazioa dutela egiaztatzeke agiri bat aurkeztu beharko dute.
 - 7) **Eranskina: abenduaren 29ko 3/2004 Legea betetzearen ziurtagiria.** Dirulaguntza 30.000 €-tik gorakoa bada, Dirulaguntzen Lege Orokorraren 13.3 bis artikulua aipatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko da, 3/2004 Legea betetzen dutela egiaztatzeke.

Dokumentazio teknikoa:

- 8) **Trakzio proiektuaren memoria teknikoa**, gehienez ere 25 orrikoa, bi aldeetatik, eta Arial 11 letrarekin. Alderdi hauek jasoko ditu:
 - **Proiektuaren deskribapen laburra, helburuak eta jarduera nagusiak.**
 - **Justifikazioa:** tartean dauden enpresa edo erakundeek zergatik parte hartu nahi duten proiektuan, eta nola dagoen haien balioekin edo helburuarekin lerrokatuta.
 - **Helburuak:** proiektuaren helburu zehatzak, laneratzearekin, enplegarritasuna

handitzearekin eta/edo sektorean aukerak sortzearekin lotuta.

- **Jardueren deskribapena:** enpresa edo erakunde interesdunak proposatzen dituen jardueren xehetasuna, nola gauzatuko diren eta zer inpaktu izango duen langabetuengan.

- **Lan plana eta kronograma,** alderdi hauek barne:

Egin beharreko jarduerak: proiektuaren esparruan hasieratik bukaerara gauzatuko diren zeregin eta ekintza zehatzak azaltzea.

Epeak eta kronograma: jarduera bakoitza gauzatzeko datak eta epeak jasotzen dituen kronograma aurkeztea. Horretan jasoko dira funtsezko datak, esaterako, parte-hartzaileak hautatzeko fasea, prestakuntza, praktikak, jarraipena, etab.

Arduradunak: zehaztea zein izango den proiektuaren fase edo jarduera bakoitzaren arduraduna, hala enpresa edo erakunde interesdunaren barruan, nola laguntzaile posibleen artean.

Instalazioak: proiektuaren jarduerak egiteko zer instalazio dauden zehaztuko da.

- Enpresa edo erakunde interesdunak proiektua gauzatzeko erabiliko duen **laneko metodologia**, barne hartuta:

Prestakuntza: baldin eta enpresa edo erakunde interesdunak prestakuntza eman behar badu proiektuaren aurretik edo proiektua gauzatu bitartean, zehaztu beharko du zer nolako prestakuntza emango duen, zer trebetasun edo gaitasun garatuko diren eta nola neurtuko den prestakuntza horrek izan duen arrakasta.

Mentoretza eta jarraipena: parte-hartzaileentzako mentoretza- edo laguntza-prozesuak sortuko badira, zehaztu beharko da nola inplementatuko diren, nola egingo den parte-hartzaileen aurrerabidearen jarraipena eta nola ebaluatuko den haien aurrerapena.

Gizarteratze- eta laneratze-jarduerak: parte-hartzaileen gizarteratzean eta laneratzean laguntzen duten jarduerak deskribatuko dira, esaterako, sentsibilizazio jardunaldiak, tailerrak edo sektoreko beste enpresa batzuekin egindako topaketak.

- **Aurrekontua**

Zuzeneko kostuak: proposatutako jarduerekin lotutako kostuak zehaztuko dira, esaterako, prestakuntzakoak, materialak, parte hartzen duten langileen ordainsariak, garraioa, etab.

Zeharkako kostuak: hala badagokio, proiektua gauzatzearekin lotutako beste zeharkako gastu batzuk deskribatuko dira, esaterako, kostu operatiboak, azpiegiturak, etab.

Finantzaketa iturriak: enpresak finantzaketa gehigarria bilatzen badu edo kanpoko ekarpenen bat badu, atal honetan adieraziko da.

- **Espero diren emaitzak eta ebaluazioa**

Arrakastaren adierazleak: zer adierazle erabiliko diren proiektuaren arrakasta neurtzeko, esaterako, kontratatutako parte-hartzaileen kopurua, parte-hartzaileen gogobetetasun maila, enplegarritasunean duen inpaktua, etab.

Ebaluazioko metodologia: nola egingo den proiektuaren ebaluazioa, zer tresna erabiliko diren (inkestak, elkarrizketak, etab.) eta nola aztertuko diren emaitzak.

Jasangarritasuna: zer neurri hartuko diren ziurtatzeko proiektuaren emaitzek inpaktu iraunkorra izango dutela, gauzatzen amaitu ondoren.

- **Lankidetzak eta aliantzak:** proiektuaren barruan beste erakunde batzuekiko lankidetzak egingo denez (prestakuntza zentroak, hirugarren sektoreko erakundeak, enplegu agentziak, orientaziokoak, nagusiki fundazioak eta/edo elkarteak), erakunde interesdunak adierazi beharko du nola jardungo duen erakunde horiekin eta nola kudeatuko dituen lankidetzako harremanak.

Kolaboratzaile sarea: enpresa edo erakunde interesdunak aurretiko aliantzak baditu beste erakunde batzuekin, garrantzitsua da informazio hori sartzea. Halaber, egokia izan daiteke enpresak adieraztea zer plan duen prestakuntza zentroekin, hirugarren sektoreko erakundeekin, enplegu agentziekin eta sektoreko fundazio eta/edo elkarteekin aliantza berriak egiteko.

- **Enpresaren gizarte-erantzukizuna (EGE):** adierazi beharko da proiektuak gizarte-erantzukizuneko ikuspegia duen, nola lerrokatzen den enpresa edo erakunde interesdunaren EGEarekin eta zer onura ekartzen dizkion komunitateari.
- **Inklusioarekiko eta aniztasunarekiko konpromisoa:** zehaztu behar da enpresa edo erakunde interesdunak nola sustatuko dituen inklusioa eta aniztasuna proiektua gauzatu bitartean.

- **Sentsibilizatzeko ekintzak:** gizarteratzearen eta laneratzearen garrantziaz sentsibilizatzeko egin beharreko ekintza oro zehaztea.
- **Ingurumen jasangarritasuneko irizpideak:** zehaztu behar da zer neurri hartuko diren finantzatzeko den jardura ingurumen aldetik jasangarria dela bermatzeko, bereziki aurrez aurreko prestakuntzaren kokapenari, ekipamendu elektroniko eraginkorrak erosteari, bulegoko materiala eta papera ingurumen irizpideei jarraikiz eskuratzeari eta hondakinen murrizketari eta kudeaketa egokiari dagokienez.

Aurreko ataletan aipatutako agiriak aurkezteko, dagozkion eranskinak emango dira eskabidearekin batera. Eranskinak osorik bete behar dira. Sinatu beharreko dokumentazio erantsia **digitalki sinatu beharko da**.

Onuradunaren erantzukizuna izango da egindako erantzukizunpeko adierazpen guztiak eta aurkeztutako gainerako dokumentuak egiazkoak izatea.

Donostia Sustapenak behar beste informazio eskatu ahal izango du oinarri hauek betetzen direla ziurtatzeko.

Agiriak aurkezteko epeak betetzen ez badira, edo oinarri hauetan ezarritako beste edozein baldintza betetzen ez bada, eskaera ezetsi egin dela ulertuko da.

Dirulaguntza emateko ebazpenean, dirulaguntza gordinaren zenbateko baliokidearen berri emango zaio onuradunari, minimis laguntzaren mugaren ondorioetarako.

Onuradunaren erantzukizuna izango da egindako erantzukizunpeko adierazpen guztiak eta aurkeztutako gainerako dokumentuak egiazkoak izatea.

9. ARTIKULUA. ESKABIDEETAKO AKATSAK ZUZENTZEA

Dokumentazio guztia aztertu ondoren, Donostia Sustapenak bete gabe dagoela edo dokumenturen bat falta dela ikusten badu, hamar (10) egun balioduneko epean akats hori zuzentzeko edo behar diren dokumentuak eransteko eskatuko dio eskatzaileari, eta hala egin ezean eskabidea beste izapiderik gabe baztertuko dela adierazi eta dagokion ebazpena emango du.

Onuradunak harremanetarako helbide elektroniko gisa eman duen posta elektronikoaren bidez jakinaraziko dira zuzenketak (jakinarazpenetarako helbide elektronikoa). Jakinarazpenak web-aplikazioan ere eskuragarri egongo dira, espedientearen barruan.

Hasierako eskabidea zer kanaletatik egin zen, kanal hori erabiliko da zuzentzea eskatu den dokumentazioa aurkezteko ere. Ez dira onartuko posta elektronikoz aurkeztutako justifikazioak.

Dirulaguntzak Donostia Sustapenak berariaz egindako ebazpen bidez eman edo ukatuko dira eta posta elektronikoz jakinaraziko da. Jakinarazpenak web-aplikazioan ere eskuragarri egongo dira, espedientearen barruan.

10. ARTIKULUA. DIRULAGUNTZAREN IZAPIDEA ETA EBAZPENA

Laguntzak emateko prozedura norgehiagoka bidezkoa izango da, azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 22. artikuluan aurreikusitakoa, eta publikotasunaren, gardentasunaren, objektibotasunaren, berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioak beteko ditu, baita helburuak betetzeko eraginkortasunarena eta baliabide publikoak esleitzeko eta erabiltzeko efizientziarena ere.

Lehia bermatze aldera, proiektuaren memoria teknikoa proposamenak ebaluatzeko dokumentu baliozkotzat joko da.

Aurkeztutako proiektu guztiak honela ebaluatuko dira:

Memoria teknikoa eta ekonomikoa baloratuko da («memoria teknikoa»), 100 punturaino, eta gutxienez 60 puntu lortu beharko dira proiektua onartzeko.

Tokiko proiektuak izan eta ezaugarri hauetako bat eduki beharko dute:

- Hiri ekonomiaren sektorearen esparruan eta merkataritzaren eta ostalaritzaren arloetan enplegu-aukerak sortzeko eta/edo parte-hartzaileen enplegarritasuna hobetzeko xedea izatea.
- Arlo horretan laneratzea erraztuko duten ekimenak sortzea, zeinetan gaitasunak eskuratzea, trebetasun praktikoak garatzea eta tokiko eragileen eta enpresen arteko lankidetzak bultzatuko baitira.
- Esparru horretan lanbide profilen dibertsifikazioa eta kalteberatasun egoeran dauden kolektiboen inklusioa sustatzen dutenak.
- Sektore horretan kolektiboen gizarteratze eraginkorra lortzea, profesionalizazioagatik edo hiri ekonomiaren sektoreko enpresetan edo jardueretan laneratzeagatik, merkataritzaren eta ostalaritzaren arloetan.
- Hiri ekonomiaren sektoreko merkataritzaren eta ostalaritzaren arloetan epe luzeko enpleguaren sorreran eragin nabarmena dutela frogatzea.
- Proiektuak balorazio-irizpide hauen arabera ebaluatuko dira:

1) Trakzio-proiektuaren garrantzia · Proiektuaren helburuen egokitasuna · Hiri ekonomiaren eremuan merkataritzarekin eta ostalaritzarekin lotura izatea • Eragin soziala	20 puntu
2) Bideragarritasun teknikoa eta operatiboa • Proposamena gauzatzeko behar diren baliabideak eta gaitasunak • Esperientzia antzeko proiektuetan • Plangintza eta kronograma • Hautagaien profil guztietarako erabilgarria den proposamena	20 puntu
3) Berrikuntza eta sormena • Lehenago egin ez diren edo tokiko gaur egungo jardunbideak hobetzen dituzten proposamenak	15 puntu
4) Lankidetzak eta lan sareak • Aliantza estrategikoak (beste erakunde batzuekiko lankidetzak) • Sareko lana (hainbat eragileren arteko sareko lana sustatzea)	15 puntu
5) Inpaktua enplegarritasunean • Hiri ekonomiaren sektoreko merkataritzako eta ostalaritzako lan merkatuekin lotura izatea. • Parte hartzaileei lan merkatuan sartzeko trantsizioan laguntzeko neurriak (orientazioa, aholkularitza, erregularizazioa, prozesuaren jarraipena...)	10 puntu
6) Trakzio proiektuaren kohesioa eta kudeaketa • Kudeaketa-egitura argia eta erantzukizunak ondo banatuta egotea sareko lanean. • Ebaluazio mekanismoak	10 puntu
7) Proiektuan genero ikuspegia integratzea • Konpromisoa hartzea proiektua gauzatzen duten langileei berdintasunaren arloko gutxienez 2 prestakuntza ordu emateko	10 puntu
PROIEKTUAREN PUNTUAZIOA, GUZTIRA	100 puntu

Proiektu batek ez baditu 60 puntu baino gehiago lortzen ebaluazio osoan (irizpide guztien puntuazio haztatuak batuta), ez da kontuan hartuko aurrekontua/zenbatekoa/dirulaguntza esleitzeko.

Donostia Sustapena harremanetan jarri ahal izango da gutxieneko puntuazioa gainditu ez baina 50 puntu edo gehiago lortu dituzten proiektuetako eskatzaileekin, proiektua ongi ulertu den alderatzeko.

Erakunde bakoitzak gehienez ere 2 eskabide egin ahal izango ditu, bakoitza proiektu bati buruzkoa. Onartutako eskabideak ezarritako irizpideen arabera ebaluatuko dira, eta onartutako proiektuak puntuazio handienetik txikienera ordenatuko dira. Dirulaguntzak esleitzeko, lehentasun ordena hori errespetatuko da, kreditu erabilgarria agortu arte, arau hauen arabera:

- Lehenengo fasean, gehienez ere dirulaguntza bat emango da erakunde eskatzaile bakoitzeko, eta bakoitzak aurkeztutako proiektuetatik balorazio hoberena dutenei emango zaie lehentasuna, lortutako puntuazioaren arabera.
- Erakunde onuradun bakoitzari lehen dirulaguntza esleitu ondoren, eta oraindik ere kreditu erabilgarririk badago, bigarren esleipen faseari ekingo zaio. Fase horretan, onuradun izan diren erakundeen beste proiektu batzuei emango zaizkie dirulaguntzak, betiere puntuazio orokorraren ordenari zorrotz jarraituz.
- Baldin eta berdinketa gertatzen bada bi eskabide edo gehiagoren artean, 1. ebaluazio irizpidean puntuazio handiena dutenak lehenetsiko dira. Berdinketak jarraitzen badu, 2. ebaluazio irizpidean puntuaziorik handiena duena lehenetsiko da, eta oraindik ere berdinketa badago, 3. ebaluazio irizpidearen arabera lehenetsiko da, eta horrela jarraituko da, 6. irizpidera iritsi arte. Berdinketak jarraitzen badu, eskabideak aurkezteko ordenari emango zaio lehentasuna.
- Eskabideak hautatzeko orduan, erreserbako zerrenda bat egin ahalko da, puntuazioaren arabera ordenatuta, erakunde onuradunen batek dirulaguntzari uko egiten badio edo aurrekontua handitzen bada Donostia Sustapenak aukera izan dezan zerrenda horretako eskatzaileari dirulaguntza emateko, beste deialdi bat egin behar izan gabe.

Eskatutako laguntzari buruzko ebazpena emateko epea sei hilabetekoa izango da, eskabidea erregistratzen den egunetik zenbatzen hasita. Epe horren barruan ez dira sartuko

administrazio agiriak zuzentzeko emandako epeak. Laguntza emateari buruzko ebazpena adierazitako epearen barruan ez egiteak ez du esan nahi laguntza eman denik.

Dirulaguntzak Donostia Sustapenak berariaz egindako ebazpen bidez eman edo ukatuko dira eta posta elektronikoz jakinaraziko da. Jakinarazpenak web-aplikazioan ere eskuragarri egongo dira, espedientearen barruan.

Ebazpenak posta elektronikoz jakinaraziko zaizkie eskatzaileei, Eskabidearen Eranskinean «Jakinarazpenetarako helbide elektroniko» gisa emandako helbidera. Halaber, web aplikazioan eskuragarri egongo dira, erakunde edo pertsona eskatzaile bakoitzaren espedientearen barruan, eta onuradunen zerrenda argitaratuko da.

Deialdi honi buruzko jakinarazpenak bitarteko elektronikoen bidez egingo dira, eskabidean adierazitako helbide elektronikoaren bitartez; gainera, webgunean eskuragarri egongo dira, erakunde edo pertsona eskatzaile bakoitzaren espedientearen barruan.

Eskatzailea eman den ebazpenarekin ados ez badago, alegazioak aurkeztu ahal izango ditu, ebazpena eman eta hilabeteko epean gehienez ere. Donostia Sustapenak erabakitakoa beteko da, eta, beharrezkoa bada, Donostiako auzitegien eta epaitegien mende jarriko dira bi alderdiak.

Era berean, Donostia Sustapenak aukera izango du aurrekonturik ez izateagatik dirulaguntzarik gabe geratu diren eskabideekin erreserbako zerrenda bat sortzeko, geroago aurrekontua lortzen bada onartze aldera.

11. ARTIKULUA. LAGUNTZEN JUSTIFIKAZIOA ETA ORDAINKETA

Diruz lagundu daitezkeen gastuei aplikatuko zaie, esanbidez, 20/2023 Legeak, abenduaren 21ekoak, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzekoak bere 30. artikuluan ezarritakoa.

Laguntza ordainketa bakar batean ordainduko da, **azken justifikazioaren ondoren, zeina beranduenik 2027ko maiatzaren 15ean aurkeztuko baita**. Salbuespenez, eta behar bezala justifikatutako kasuetan soilik, Donostia Sustapenak beste epe bat onartu ahal izango du. Horretarako, onuradunak idatziz eta behar besteko aurrerapenaz eskatu beharko du, egoera baloratu ahal izateko eta, hala badagokio, dagokion luzapena baimentzeko.

Txartel bidez, banku transferentzia bidez edo helbideratuta egindako ordainketen egiaztagirak soilik onartuko dira. Egiaztagiri horietan, egindako eragiketari buruzko informazioa jaso beharko da (onuraduna, kontzeptua, zenbatekoa, data, etab.). Ez da onartuko banku-mugimenduen zerrendarik, ezta BIZUM bidez egindako ordainketarik ere.

Ez badira betetzen oinarri hauetan ezarritako epeak edo edozein betekizun eta baldintza, laguntza ezetsizat joko da, eta dagokion ebazpena emango da.

Donostia Sustapenak egokitzen jotzen dituen ekintzak egingo ditu ofizioz, dirulaguntza Oinarri Arautzaileetan jasotako helburuetarako erabili dela egiaztatzeko.

Dirulaguntzaren zenbatekoa inoiz ez da izango laguntza ematean onartu den zenbatekoa baino handiagoa.

Agiri hauek aurkeztu beharko dira justifikaziorako:

Justifikazio dokumentuak:

1) Eranskina: justifikazioa

2) Amaierako memoria, zeinetan gutxienez puntu hauek jasoko baitira, gehienez ere 25 orritan eta Arial 11 letrarekin, eta metodologiari % 20 eskainita.

- **Zuzeneko inpaktua** kolektiboan (parte-hartzaileentzako onurak, kasu arrakastatsuak, gizarteratzekoak, laneratzekoak, proiektuaren hasierako eta amaierako lan egoera...)
- **Hiri ekonomiaren esparruan eta merkataritzaren eta ostalaritzaren sektoreetan inklusioa sustatzea** (inklusioa bultzatzeko ekintzak, enpresen sentsibilizazioa, ikusgarritasuna, tokiko enpresekiko loturak sendotzea).
- **Sareko lanaren eta proiektuen baterako sorkuntzaren inpaktuaren ebaluazioa** (aliantzak, lankidetzak, baterako lanerako ereduak, jarraitutasuneko eta jasangarritasuneko planak).
- **Trakzio proiektuan erabilitako metodologia**, agerian jarritz proposamena berritzailea eta desberdina dela planteatutako erronkari aurre egiteko, zer alderdi hobetu daitezkeen, zein diren ateratako ondorio nagusiak eta nola zabaltzea daitezkeen etorkizuneko proiektuetan.

Parte-hartzaileekin egindako ekintzen trazabilitatea; horretarako, egindako ekintza guztien inguruko **froga dokumental eta grafikoak** aurkeztu beharko dira, eranskin hauen bidez:

- I. eranskina: parte-hartzaileen datuen excela (datu pertsonalak, kalteberatasun egoera, kolektiboak). Donostia Sustapenak excel bat aurkeztuko du, proiektuaren hasieran eskatutako gutxieneko datuekin.
- II. eranskina: parte-hartzaileek aurrez aurreko prestakuntzako ekintzetara egunero bertaratu izanaren inguruko fitxak (prestakuntzarako bekak kudeatzen badira, «beka-hartzailearen hartu-agiria, esleipen ekonomiko osoarena» egin

20

beharko da) eta Banakako Lan Orientazioko elkarriketako sinaduren fitxak.

- III. eranskina: landutako edukia eta egindako ekintzen kronograma. Ikasleei emandako material didaktikoa. Parte-hartzaileen gogobetetasunaren ebaluazioak
- IV. eranskina: informazio bilketa, jardueretan genero ikuspegia txertatuta. Horren arabera, erakunde onuradunak artatutako langabeei buruzko informazioa eman beharko du, beti sexuaren arabera bereizita, eta parte-hartzaileen profil profesionalen eta horiekin jorratutako lan ibilbideen azterketa orokorra egin, genero ikuspegia azterketa osoan txertatuta.
- V. eranskina: erakunde onuradunak bere jardueraren ondorioz eta trakzio proiektuaren xedearekin lotutako pertsonen arreta emateko sortu duen dokumentu oro, eta/edo Donostia Sustapenak proiektua Donostiako Enplegu Planaren barruan justifikatzeko eskatutako agiriak.

3) «Memoria finantzarioa» eranskina, laguntzaren kostua justifikatzeko, Excel formatuan.

4) Dirulaguntzaren xedearen fakturak. Fakturak xehatuak izan beharko dute, eta laguntzaren azken hartzailearen izenean eginak, laguntzaren xede diren kontzeptuak identifikatzeko modukoak izan daitezten. Pertsona edo erakunde onuradunak nahitaez aipatu beharko du Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzuak eta Eusko Jaurlaritzako Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailaren Enplegurako Lankidetzako Funtsak batera finantzatu dutela programa, Donostiako Enplegu eta Toki Garapenerako 2026-2030 aldirako Planaren esparruan.

5) Egindako ordainketen banku frogagiriak

Ordainketa hori aurkeztutako fakturei dagokiela zalantzarik gabe identifikatzea ahalbidetzen duten ordainagiri guztiak onartuko dira. Baliozkotzat joko dira alderdi hauek identifikatzea ahalbidetzen duten ordainagiriak:

- Laguntzaren onuradunak egin duela ordainketa.
- Nor den ordaindutako kopuruak jaso dituen hirugarrena.
- Ordainketaren data.

Dokumentazioa telematikoki aurkeztu beharko da. Ez dira onartuko posta elektronikoz aurkeztutako justifikazioak. Era berean, eranskin guztiak osorik bete behar dira, eta elektronikoki sinatu, behar izanez gero.

Dokumentazio guztia aztertuta, egiaztatzen bada benetan jasotako zerbitzuak ez datozela bat osorik edo zati batean onartutako jarduketekin edo justifikatu diren gastuen kontzeptuekin, justifikatutako jardueri dagokien zati proportzionala soilik ordainduko da.

Dokumentazioa telematikoki aurkeztu beharko da. Ez dira onartuko posta elektronikoz aurkeztutako justifikazioak.

12. ARTIKULUA. ONURADUNEN BETEBEHARRAK

Laguntzon onuradunek beren gain hartuko dituzte 20/2023 Legeak, abenduaren 21ekoak, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzekoak aurreikusitako betebeharrak eta, bereziki, honako hauek, batzuk aipatzearen eta mugarik garri gabe:

- a) Jasotako laguntza diruz lagundutako jarduerak egiteko erabiltzea.
- b) Diruz lagundu daitezkeen gastuak justifikatzeko behar den dokumentazioa ezarritako moduan eta epean aurkeztea.
- c) Jasotako laguntzen aplikazioa frogatzeko agiriak gordetzea, egiaztatzeko nahiz ikuskatzeko jarduketak egin daitezkeen bitartean eta, nolanahi ere, aplikatzekoa den araudiak ezarritako epean.
- d) Proiektuak barnean hartzen dituen jardueretako gastu eta diru-sarrera guztiak kontabilitatean sartzea.
- e) Kontabilitateko liburuak egoki eramatea, horretara behartuta egonez gero.
- f) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean edukitzea.
- g) Dirulaguntza onartzeko garaian kontuan hartutako edozein egoera objektiboren edo subjektiboren aldaketa oro jakinaraztea Donostia Sustapenari.
- h) Donostia Sustapenari bere eginkizunak betetzeko eskatzen duen informazio guztia ematea, emandako dirulaguntzei dagokienez.
- i) Helburu bererako lortu diren beste dirulaguntzen, laguntzen, diru-sarreraren edo baliabideen berri ematea Donostia Sustapenari.
- j) Donostia Sustapenak jaso den laguntzarekin lotuta antolatzen dituen jardunaldietan parte hartzea, halakorik antolatzen badu (proiektuen aurkezpena, jarduerak, emaitzen jarraipena, eta abar).
- k) Laguntzaren xede den eskabidean aurkeztutako baldintzak aldatzen dituen edozein inguruabarren berri ematea Donostia Sustapenari. Beharrezkoa bada, Donostia Sustapenari finantza-kontrola eta ikuskaritza egiteko jardueretan laguntzea, eta eskatzen dituen informazio eta agiri guztiak jartzea haren eskura.
- l) Diruz lagundu daitezkeen jarduera egiteko beharrezko diren lizentzia eta baimen guztiak izatea.
- m) Oinarri hauen 3. eta 4. artikuluetan adierazitako betekizunak betetzea.

- n) EAEko hizkuntza ofizialen erabilera bermatzea (euskarari lehentasuna emanez) komunikazio-euskarrietan (webgunea, sare sozialak, posta-zerrendak, megafonia, eta abar) eta sustapen eta hedapeneko materialak argitaratzean, antolatutako jardunaldi eta ekitaldietan, eta beste.

Erakunde eskatzaileek aholkularitza eskatu ahal izango diote Donostiako Udalaren Euskara Zerbitzuari testuak itzuli eta zuzentzeko (hilean gehienez ere 1.000 karaktere itzultzeko eta 9.000 karaktere zuzentzeko), zerbitzuaren baldintzak eta ezaugarriak betetzen badira (<http://www.donostiaeuskaraz.eus/euskaraz/dirulaguntzak/lang/es>).

- o) Erakunde eskatzaileek berariaz lagundu beharko dute beren ekintzen bidez onuradunei eta herritarrei Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzuak egin duen ekarpenaren berri ematen.

13. ARTIKULUA. DIRUA ITZULTZEA

Kasu hauetako edozeinetan, onuradunak jaso duen diru-ekarpena itzuli beharko du, diruaren legezko interesa gehituta (emandako diru kopuruak ordaindu diren unetik aurrera):

- Oinarri hauetan aurreikusitako betebeharrak urratzen baditu, larriki eta behin eta berriro. Urratze larritzat eta/edo errepikatutzat joko da oinarri hauetako betebeharren bat edo batzuk behin baino gehiagotan ez betetzea; aurkeztutako datu, ziurtagiri, txosten eta/edo dokumentazioen bat faltsutzea; eta/edo oinarri hauen esparruan jasotako laguntza osoa edo zati bat aurreikusitakoez bestelako helburu baterako erabiltzea.
- Ekarpeneren helburua dagokion epean eta oinarri hauetan ezarri bezala justifikatzeko betebeharra urratzen badu, edo horietan ezarritako betekizun edo betebeharrak ez baditu betetzen, edo justifikazioa aski ez bada.
- Onuradunaren jarduera egiaztatzeko eta ikuskatzeko egiten diren jardueri aurka egin, aitzakiak edo oztopoak jarri edo uko egiten badie, eta kontabilitateko, erregistroko edo dokumentuak gordetzeko betebeharrak betetzen ez baditu, eta horren ondorioz ezin bada egiaztatu jasotako ekarpenak zertarako erabili diren, finantzatutako jarduerak egiaz eta erregularitasunez egin diren, edo helburu bererako beste dirulaguntzarik, laguntzarik, diru-sarrerarik edo baliabiderik jaso den, estatuko, Europar Batasuneko edo nazioarteko edozein administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatutik.
- Jarduerak gehiegizko finantzaketa jaso badu, gastatu gabeko edo gainfinantzatutako zenbatekoa itzuli beharko du.
- Objektibotzat jotzen ez diren edo enplegatzailearekin zerikusirik ez duten arrazoiengatik kontratua desagitea.

Aurrekoa kontuan hartuta, laguntza hauek jasotzeko betekizunak bete eta une oro mantendu

beharko dira. Osterantzean, Donostia Sustapenak dirulaguntzak itzultzeko eska dezake, aurreko paragrafoetan adierazitako baldintzetan. Era berean, urratze-kasu larriagoetan, esaterako, datu faltsuak aurkezten badira edo jasotako laguntza osoa edo zati bat desbideratzen bada, Donostia Sustapenak eskubidea izango du emandako laguntza deuseztatzeko eta, hala badagokio, jasotako zenbateko guztiak itzul daitezen eskatzeko, bai eta jasotako zenbatekoa halako bost ordain dadin eskatzeko ere.

Jasotako dirua itzuli egin beharko da, jarraian deskribatutako baldintzetan, Donostia Sustapenak oinarri hauetan ezarritako kausaren bat gertatu dela egiaztatzen badu eta onuradunari hala jakinarazten badio.

Dirua laurogeita hamar (90) egun naturaleko epean itzuli beharko da, Donostia Sustapenak onuradunari artikulua honetan dirua itzultzeko aurreikusitako kausaren bat dagoela burofaxez bidaltzen dionetik zenbatzen hasita.

Era berean, eta aurreko paragrafoetan xedatutakoaz gain, Donostia Sustapenak eskubidea izango du, BI (2) URTEKO epean, Donostia Sustapenak eskainitako beste edozein laguntza edo onura lortzeko aukera eragozteko edozein pertsona fisiko edo juridikori, baldin eta oinarri hauetan ezarritako betebeharren bat zabarkeriaz bete ez badute edo fede onaren funtsezko arauak urratzen dituzten jokabideak izan badituzte.

14. ARTIKULUA. BATERAKO FINANTZAKETA

Laguntza hauek Donostiako Enplegu eta Toki Garapenerako 2026-2030 Planaren esparruan kokatzen dira, zeina Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzuak eta Eusko Jaurlaritzaren Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailaren Enplegurako Lankidetzako Funtsak finantzatu baitute elkarrekin.

15. ARTIKULUA. DATU PERTSONALAK BABESTEA

Datuak babesteko indarrean den araudian ezarritakoaren arabera, jakinarazten da Donostiako Udalak tratatuko dituela emandako datu pertsonalak, tratamenduaren erantzule den aldetik; informazioa Donostia Sustapena SAK kudeatuko du, tratamenduaren arduradun gisa.

Tratamenduaren helburua da zure eskabidea izapidetu eta kudeatzea.

Tratamenduaren zilegitasuna DBEOren 6.1.e) artikuluan oinarritzen da: tratamendua beharrezkoa da interes publikoaren onerako eginkizun bat betetzeko edo tratamenduaren erantzuleak esleituta dituen botere publikoak erabiltzeko: 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki

Araubidearen Oinarriei buruzkoa, eta 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa, eta 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa.

Oinarri hauetan edo dagozkion eskabide-orrietan hala adierazten denean, nahitaezkoa izango da datu pertsonalei buruz eskatutako informazioa ematea, eta datu horiek ematen ez badira edo datu okerrak ematen badira ezinezkoa izango da eskabidea kudeatzea.

Beharrezkoa denean, eta laguntzen emakida kudeatzeko soilik, estatuko eta estatuz gaindiko beste erakunde batzuei laga ahal izango zaizkie oinarri hauetan erregulatutako laguntzen onuradunek emandako datu pertsonalak, erakunde horiek laguntzen finantzakide badira eta/edo Donostia Sustapenarekin elkarlanean aritzen badira laguntza horiek kudeatzeko.

Era berean, jakinarazten da laguntzak emanez gero onuradunaren identifikazio-datuak komunikatu edo lagako direla, argitaratu egingo baitira, emandako zenbatekoarekin batera, Donostia Sustapenaren web orrian eta Dirulaguntzen Datu Base Nazionalen.

Ez dago aurreikusita hirugarren batzuei datu komunikazio gehigarririk ematea, legezko betebeharra denean izan ezik, eta ez da aurreikusten datuen nazioarteko transferentziarik ere ez.

Datu pertsonalak zertarako bildu ziren, helburu hori betetzeko beharrezkoa den denboran gordeko dira, baita helburu horren eta datuen tratamenduaren ondorioz erator litezkeen erantzukizunak zehazteko ere. Artxibo eta dokumentazioko araudian xedatutakoa aplikatuko da.

Ukitutako pertsonen datuetara sartzeko eta datuak zuzendu nahiz ezabatzeko eskubideak erabili ahal izango dituzte, baita datuen babesari buruz indarrean dagoen araudian jasotako beste eskubideak ere, bidezkoa denean. Horretarako, Donostiako Udalaren Udalinfo Zerbitzura jo dezakete (Ijentea, 1, 20003 Donostia).

Eskubideak erabiltzean ez badute arreta egokia jaso, Datuak Babesteko Euskal Bulegoan erreklamazioa aurkez dezakete. Helbidea: Tomas Zumarraga dohatsuaren kalea, 71 – 3. solairua – 01008 Vitoria-Gasteiz. Hala ere, aldez aurretik eta nahi izanez gero, Donostiako Datuak Babesteko ordezkariarekin harremanetan jarri ahal izango da: dbo@donostia.eus.

16. ARTIKULUA. AZKEN XEDAPENA

Indarrean jartzea eta onartzea.

Oinarri hauek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira, eta argitaratu eta hurrengo egunean jarriko dira indarrean.

Eskabidea aurkeztuta, interesdunek guztiz onartzen dituzte oinarri hauek.

Erantzukizunetik salbuestea.

Diruz laguntzen den jarduera egin aurreko edo ondorengo jarduketan ondorioz edo jardueraren beraren ondorioz kalte pertsonal eta/edo materialik eragiten bada, onuraduna izango da horien erantzule bakarra; beraz, Donostia Sustapenak ez du izango kontzeptu horien gaineko erantzukizunik inola ere.

17. ARTIKULUA. ARAUBIDE JURIDIKOA

Emandako laguntzetan, oinarri hauetan jasotako arauak eta, osagarri gisa, DLOan eta lege hori garatzen duen erregelamenduan (887/2006 Errege Dekretuak, uztailaren 21ekoak, DLOaren Erregelamendua onartzen duenak –aurrerantzean, DLOE– onetsi zuen) jasotako arauak aplikatuko dira, baina DLOan jasotako kudeaketa-printzipioei eta 20. artikuluan aipatutako informazio-arlokoiei dagokienez soilik; hori guztia, 3.2 artikuluko bigarren paragrafoa betez (hor zehazten da aplikazio hori). Halaber, aplikatzekoa izango da 2025eko Enplegu Sustapenerako Tokiko Ekintzetarako Laguntzen Deialdia, zeina Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiaren 2021eko maiatzaren 26ko Ebazpenaren bidez onartu baitzen.

Bestela, oinarri hauetan berariaz aipatzen direnean soilik aplikatuko dira aipatutako DLO eta DLOE arauak.

Donostian, sinaduraren egunean.

Ane Oyarbide Ochoa

Tokiko Ekonomia eta Enpleguaren zinegotzi ordezkaria